

Net Hurbil

PELLO ZUBIRIA

Andorrako paradisua purgatoriora bidali du Sarkozy

Andorra ez da gaur lehen zena. Bigarren Mundu Gerratik hona neutraltasunaren babesean paradisu fiskal bilakatua, XXI. mende hasierako krisi globalaren eraginez Frantziak eta Espainiak jarduera ekonomikoa aldatzera behartu dute. Ikusteke dago aldaketak kosmetikotik zenbat izango duen.

PETER SEEGER KANTARI ZAHAR (maiatzean bete ditu 90 urte) amerikarra liluraturik itzuli zen, antza, 1960an Andorran pasatu bakantzetatik. Kanta bat egin zion Malvina Reynolds-en hitzokin:

*“Egon nabi dut Andorran, Andorran, Andorran / Egon nabi dut Andorran, leku zoragarria. / Lan dolar eta xentimo ale batzuk dauzkate/ Armatan xabutzeko. / Entzun duzue inoiz hala-
korik?/ Gora Andorra!/ Pirinio mendietan/ Bada estatu burujabe bat, / bost mila arima osatua / eta zoragarria derizkiot, / ehun eta laurogei mila golde lur, / Kristoren pila maite dut. / bost dolar ere ez armatan, / horra zer ikusi dudan han”.*

Seeger eta Reynolds kantari errebeldeei bezala beste kanpotar ugari egin zaio betidanik erakargarri Pirinioetako haran koxkor independentea. Bertakoak, berriz, harro daude 1258tik gozatzen duten burujabetza bitxiak. Haien ereserkia hasten da: *“Gure aita Karlomanek askatu gintuen arabiarretatik (...) Karlomanen inperioaren alaba bakar eta azkena naiz / Kristau hamaika mendez, kristan jarraitu nahi dut”.*

Luzaz baliatu da Andorra geopolitikak aspaldi egindako opari hartaz, alegia, ondoko bi estatu handiek batera babestua izateaz. Andorrako “printzeak” dira Frantziako presidentea —bera delako

Foixeko kontearen oinordekoa— eta Seu d’Urgell-eko apezpikua. Buruzagitza bikoitz horrek lagatako tartean, negozioak ugaritu dira azken hamarkadetan Andorran, baina XXI. mendeko krisitzarrak hankaz gora ipini die sistema.

Kontuotaz Fred Halliday idazle eta irakasle irlandarrak idatzi du *Andorra’s model: time to change* (Andorrako ereduari aldatzeko garaia heldu) artikuluan. Hallidayk London School of Economics unibertsitatean nazioarteko harremanez irakatsi du, eta BBC, ABC, Al-Jazeera, Irish Radio eta beste hedabide askotan eskaini ditu Ekialde Hurbilari buruzko analisiak. Orain Bartzelonan ari da Institució Catalana de Recerca i Estudis Avançats erakundeak.

Joan den apirilean hautatu zituzten andorratarrek agintari berriak, eta emaitzetan islatu zen hango egituren aldatu beharra, lehenbiziko aldiz alderdi sozialdemokrata nagusitu baitzen, Jaume Bartumeu buru. Aldaketa, ordea, politikatik askoz haratago doa: Andorrako ekonomia lur jota dabil, Hallidayren analisiaren arabera, zeuzkan hiru oinarriek egonkortasuna galdu diotelako.

Lehenik, azken negoziotan elurra asko urritu denez, eskiari lotutako turismoak behera egin du. Bigarrenik, zergarik gabeko erosketetara

Talavan izeneko batek ipini du argazki hau Panoramio zerbitzuan; Andorrako Santa Coloma eliza ageri da bertan. Artea maite duten turistek asko estimatzen dituzte Pirinioetako erromanikoan eraikitako elizok, nahiz eta horien barruan zeuden iruditeriak ia denak atzerrira bidalita egon, ostuta edo saldurik. Hala ere, Andorrak erakartzen dituen turista gehienak ez datoz etxola, baseliza eta mendiz osatutako paradisuaren bila. Gehienak, bidaiari arruntak, autoz itotako kaleetako denden usainak erakarri ditu, horietako prezio zergabakoek. Minoria diruduna, aldiz, bankuen diskrezio famatuaren berora hurbildu da. Bulegoen hiru laurdenak Espainiako bankuen filial mozorrotuak dira. Zeru horietan babesten dituzte sosak, zoriontsu, Espainiako aberatsek.

zetozenen bidaiak gutxitu dira, funtsean Espainia krisi ekonomiko betean murgildu delako. Hirugarrenik, krisiak munduko estatuak diru beharrean utzi dituenen, paradisu fiskalak kontrolatu nahian hasi dira politikariak, eta Nicolas Sarkozy oso zorrotz hartu du Andorra.

Duty-freea nola lotu

Andorrako ekonomiarentzako lehen alarma Standard&Poor’s etxeak piztu zuen 2008an, haren zor publikoaren kualifikazioa AA mailatik AA- mailara jaitsi zuenean. Askoz latzagoa gertatu zen aurten go otsailean, hauteskunde kanpainaren atarikoan, Nicolas Sarkozy andorratarrei egin mehatxua: edo sartzen zarete Suitzak eta Liechtensteinek bai zergetan eta bai bankuen gardentasunean hartu dituzten neurrien arrasto beretik, edo bestela zigor ekonomikoak datozkizue.

Paradisu fiskalen kontrako borrokan norbait dela erakutsi nahi izan du Sarkozy hilabeteotan, hortik bere mehatxua: “Aldatu ala hil” esan omen zien Parisko ordezkariak Andorrako agintariei. Azkar hartu zuen jarrera bera Espainiak, horrek Gibraltari presioa gogortzen lagunduko diolakoan.

Arin erantzun dute andorratarrek. Irailean bankuen sekretuaren arauak aldatu dituzte eta akordioak



proposatzen hasi zaizkio Frantziari eta beste herrialde askori.

Urte luzez Andorra ugarte bat izan da banku eta zerga kontuetan. BEZik ez komertzioetan. Irabazien gaineko zergak %10ean 35.000 euro arte. Atzerritiko diruei gobernuak %4ko inposa ezartzen zien, hori zuen diru iturri nagusia.

Beste diru iturria, jakina, kontrabandoan datza. Klase guztietako merkantziak pasatzen dira gauero Andorratik Espainia aldera. Horien artean, tabakoa. Haran hura tabakoa hazteko oso egokia dela diote, baina hango soroek nekez sor lezaketete esportatzen duten adina tabako orri.

Kontrabandoak, bankugintza arreak eta zerga arinek erakarritako

turismoaren epelean, 1960etik populazioa nabarmen handitu zen. Horregatik gaur egun Andorrako haranean bizi diren 85.000 herritarretatik %37 besterik ez dira andorrratar nazionalitatea daukatenak, gainerakoak espainiarrak dira (%32), portugesak (%16) eta frantsesak (%6). Datuotan ez dira bereizten atzerritar katalanak, eta mereziko zukeen: Andorrak betidanik katalanera eduki du hizkuntza ofizialtzat.

Mende luzez harana isolaturik bizi izan zen. Argindarra ez omen zen iritsi 1930 arte. Munduko gerretan neutraltasunari atxiki zitzaion. Geroago heldu zen Andorraren hazkunde, eta hala ere 1993 arte ez zuen eduki benetako konstituzio

bat, herritarrei ordezkapen politikoa bermatzen diena. Gaur, oraindik ere, biztanleen herenak baino ezin du bozkatu.

Joan den apirilean herritarrok agintea *Partit Socialdemòcrata* eman zioten, parlamentuko 28 jarlekuetatik 14. Oposizioan geratu dira 11 jarleku eskuratuta orain arteko agintariak, *Coalició Reformista* indarrean bilduak. *Andorra pel Canvik* hiru lortu ditu. Legebiltzarretik kanpo geratu da, botoen %3 eskuratuta, *Els Verds d'Andorra*, historian lehenbizikoz herrialdea errepublika izendatzea eta Espainia eta Frantziako *printzeen* babesletza desagitea aldarrikatu dutenak.

Zelan edo halan, Andorrako hautagai guztiek nabarmendu dute, Fred Hallidayk dioenez, egokitu beharra daukatela banka egiteko eta zergak antolatzeke Europar indarrean dauden eskemetara. "Suitzak ez baldin badu ahalgorik Europaren eta AEBen presioei aurre egiteko, begi bistakoa da andorrratarrik egoskorrenak ere ezingo diela.

Aldaketa oso sakonen beharrean dago Andorra. Bankugintza iluna batetik, zergabako merkataritza bestetik, neguko kirolaki... "eredu andorrratarra" omen dago krisi betean. Garaiz aldatzea lortuko du?

Sasi-txistez amaitu du Hallidayk. Andorran oraindik ohitura omen dago inor bortizki hilda azaltzean ikertzaileak gorpuari buruan kolpetxoa eman eta galdetzeko: "*Mort, qui t'bat mort?*" ("Hilotz, nork hil hau?"). Andorrako negozioa hilik agertuko denean, erantzungo omen du: "Sarkozyk!". ■





**ZINKUNEGI
OPTIKA**

Hernani, 23 · 20004 Donostia
T. 943 420 624
zinkunegi@euskalnet.net

zuri begira